# Bi (h)urritasun

*Seaskako Integrazio Batzordeari egindako abestia (2020)*

Maddalen Arzallus
Amets Arzallus

Xabier Zabala




44
D Dmaj7 D6
49
D G Dmaj7
54
D Dmaj7 D7 G
58
D Em A D
3 3
62
G D Em A D D Bm
68
D Em A7 Em A+ D D F♯7 Bm G
78
D E7 A7 D B E C♯m
83
E F♯m B7 A
87
B+ E E
91
G♯7 C♯m A E
95
F♯7 B7 E A E




Nire ipuinak izan daitezke beste munduetarako ate,
nire begiek ortzadarraren kolore denak dauzkate.
Zuretzat ere izarretara joateko hegazkin nintzake,
nire gurpildun aulki atzetik bultzako bazenidake.

Ahalmen urritasun edo bihurritasun edo urritasuna bera ahalmen.
Gaitasunak gaitasun, zailtasunak zailtasun, nola ikastola denon etxea den.
Berezko ezintasun edo berezitasun, ezberdintasunak oro bizitzaren.
Biziaren eskolan guzia da auzolan ea zu ta ni han elkartzen garen...

Nire urratsak izan daitezke bide berri baten hastapena,
zu ere leku berrietara eraman zaitzakeena.
Zu izan zaitez nire makulu, ta ni izango naiz zure trena.
Elkarri lagun eginez gero jauzika doa herrena.

Ahalmen urritasun edo bihurritasun edo urritasuna bera ahalmen.
Gaitasunak gaitasun, zailtasunak zailtasun, nola ikastola denon etxea den.
Berezko ezintasun edo berezitasun, ezberdintasunak oro bizitzaren.
Biziaren eskolan guzia da auzolan ea zu ta ni han elkartzen garen...